

ARA.....GOYA

GURE izkuntza zar maitagarriak, bere itz jatorrakin antziñako gizaldietako berriak asmatzeko bideak ematen dizkigula, gauza jakina da.

Aitz edo arri garaya euskal izenetan garbi asko azaltzen zaigu, ta era onetan izaera zarretako zenbait argibide izkera maitagarriak erakusten dizkigu.

Orrengatik erbesteko jakintsu argienetakoak diote gure euskerari, euskaldun askok, zorigaitzez, ez dioten gogoia, ta alegiñian zayatzten dira gure izkuntza zarra ikasten, euskeran arkitzen dituztelako beste gauza askotako ikasbideak.

Guk, euskaldunok, maitatu biar badegu euskera, guria dalako izan biar du; gañerakoak gañerako dirala, guria izate orrek biartzen gaitu gogo osoa eskeintzera ta ematera.

Ortaz gañera, ez da gaizki, gure izkera laztanaren bitartez egipen zarraren isilpeak arkitzen ibiltzia. Erbesteko jakintsuak egiten dute, guk ere egin genezake, ta iñork baño eskubide geyagorekin.

Bañan ikas-lan abek zentzuz, tajuz egin ditugu. Ez beñere chorakeritan ibilli.

Chorakeriak kalte besterik ez digute egiten. Euskal zale ez diranak nondik kosk egin egoten dira, ta zenbait umekeri jakiten dituztenian, jakiña dago zeñen gogoz parra ta iseka egingo duten.

Ez diotegu bada orretarako oñik eman biar. Gure izkera ez da umekeri ta jostaketan ibiltzekoa, ta beraz zentzuz ari biar degu beti.

Esan degun bezela, euskeraren bitartez, antziñako gertaera, oitura, izakera ta beste onlako berri asko ezagutzen dira; bañan ez du orrek esan nai gauza guziyen sustraya euskeran dagola.

Batzubentzat bai, dala zarra, dala berriya, gauza guziyen azalpena euskeran arkitzen dute. Ta ori ezin liteken gauza da.

Izan da, *submarino* izen au bera euskeratik datorrela esan duena Ara nola: *Submarino, suma-iño* da.

Suma = usma, usna; erderaz *olfato*, *instinto*, *barrunto*, esaten dana.
Iño = erderaz *hasta*: aitagana-iño, ta abar.

Ta guziya: usmatu arterañoko gauza; ta orra zeñen erreñ *subma-riño*ren azalpena euskeraren bitartez adierazitzen duten. Orrelako gezurketak kaltetarako besterik ez ditugu ordia.

Itz berriyakín orrela badabiltza, ez dago zer esanik zarrakin nola ibilliko diran.

Ongi gogoan daukat nola esaten ziraten gaztelarren *alabar* euskeltza dala: *alabatu* dala jator jatorra. Ara nola:

Gizonak lenengo obena egin ondorean, Jaungoiko Jaunak gizata-sunari egin zion eskeintza, jayoko zala *alaba* bat sugearen burua zanpatuko zuena. Eskeintza onen bitartez alaba'ren izena gauza goyenetakotzat gelditu zan, ta ortatik *alaba-tu* esan nai du: goraldu.

Orrelako somaketak entzutian ez da arritzeko gauza, iseka ugariak jasotzia. Ala zioten bein batian: *pasiego*, bai, euskeratik dator *pasi* edo *pazi* (kaldera) ta *ego* (ala, aleta); bañan Echeberria ta Salaberria gaztelar jator jatorrak dira: *Ria de Echebe*, *Ria de Salabe*.

Chorakeriak orrelako ondorengoak ekartzen dituzte.

Beste somaketa paragarri oyetako bat esan biar det, eta gaurkoz azkenekoa izango da:

Santiyago apostol edo bidaldu deuna Ebro'ko ertzean arkitzen zan, non zegon ezin asmatu zubela, ta agertu zitzyon Ama Birjiña.

Bidaldu deunaren keskak jakin zituania gogo betez adierazi nai izan zion non arkitzen zan, bere biatz maitekorrarekin ludiko goi-biak erakutziatz.

Ara esan zion be aldera erakutziyaz, begira zazu: *Ara, bia*. (Ta zuzen zuzen, erdaldunak *Arabia* deitzen dioten leku ura zegon alderdi artan.)

Gero biurtu zan beste aldera, ta era berian esan ziyon: *Ara-goya*; au da *Aragoya*. (Erdaldunak *Aragón* deitzen diotena.)

Santiyago deuna arriturik, aboa zabalik gelditu zan, bere keskak botatzeko *gozakai* ura izan zuenian eta ala esan ziyon Birjiña Maria'ri: *¡Zaragoza!* edo *¡Zara goza!*

Lenago, orrelako gauzak somatzen zituztenak, ara, *Zara gozoa*'ra eramaten zituzten; ta orrela bagoaz, berriz ere zer edo zer egin bearrian arkituko gerala uste det.